



Hasi eta berehala atzeratu da 'Army auzia'

Sevillako Entzutegiak hasi eta ordu eta erdira atzeratu zuen atzo *Amy auziaren* epaiketa, Marcos Camacho akusatua histeriak jo zuelako auzitegiko ziegatan. Datorren astelehenean jarraituko duen epaiketak ikusmin handia sortu du, Sevillako Army pubean eta ondoko beste bitan adin txikiko mutikoen prostituzioan aritzeaz akusatutako hainbat pertsona ospetsu daudelako. Kazetari eta argazkilarik andanaren aurrean, akusatutako batzuk mozorrotuta edo kaskoa buruan zutela sartu ziren. Argazkian azaltzen den Javier Gurrutxaga abeslaria, eta Jesus Vazquez telebista aurkezlea, ordea, aurpegia agerian zutela azaldu ziren. Fiskalak 629 urteko espetxe zigorra eskatzen du akusatuentzat eta defentsek, ordea, ziurtatzen dute taberna horietan ez zirela inoiz adin txikikoak prostituitu.

Katalanaren lege berriaren testua amaitu dute

Alderdien arteko desadostasunak ez dira konpondu

Katalanaren lege berria egiteko Kataluniako Legebiltzarrak osatutako taldeak astelehen arratsaldean amaitu zuen lana. Diputatu taldeak prest utzi zuen orain Kultura batzordeak eztabaidatuko duen legegaiaren testua. Sei hilabeteko lana egin arren, talde politikoen arteko desadostasunak ez dira konpondu.

Erredakzioa / Baiona

IA ziurrenik, katalanaren lege berriak ez du duela 14 urte Kataluniako Legebiltzarrak prestatutako lehen Normalkuntza Legearen adostasun osorik bilduko. Azken sei hilabeteetan oso argi geratu da alderdien artean geroz geroz iritzi desberdinak zeudela gai honi buruz: PPK eta PSCK ez zuten lege berri baten beharrik ikusten, baina sozialistek CiUekin negoziatu dute; CiUk amore eman du zenbait gaitan PSCKren babesa lortzeko, baina era horretara ERC eta Pirena arriskuan du; independentistek uste dute legea murriztuz geratzen dela.

Legegaiak Kultura Batzordea helduko da orain, eta ondoren diputatu guztiek eztabaidatu ahal izango dute. Tramiteak bere garaian egiten badira, legea abenduan onartuko luke Legebiltzarrak.

PPk jarri dizkio oztopo gehien lege proposamenari. Alderdi eskuindarrak begi txarrez ikusten du legeak irakaskuntzan 1992az geroztik izan den hizkuntza murgilketa (katalanez) bere egitea. Era berean, PPri ez zaio ongi iruditzen Espainian egiten diren produktuek Katalunian halabeharrez etiketa katalanez gutxienez eduki behar izatea. Azken puntu horretan Espainia-

ko enpresariengatik sustengua du PPK, eta Europako Batzordearen laguntza izango du agian.

Legeak aurreikusten du irratia eta telebistetan programazioaren zati bat gutxienez katalanez izan beharra. PSCKk gai honi buruz zalantzak ditu eta PP aurka dago.

Eztabaida gehien sortu duena da saltokietan eta enpresetan bezeroak aukeraturako hizkuntza arreta egin behar izatea. CiUk eta PSCK paktatu zuten, legeak eskatzen du bezeroak «ulertu» izan behar duela eta ez duela, halabeharrez, erantzuna nahi duen hizkuntza jasoko. ERCK eta PPK uste dute exijentzia hori txikiagotzea dela. X

laburrean

■ Asturiasen 19 lagun zauritu dira autobus istripuan

AUSTRIAKO turistak garraiatzen zituen autobus batek istripua izan zuen atzo goizean Oviedo eta Gijon arteko autobidean. Istripuaren ondorioz, 19 lagunek zauriak izan zituzten; zaurituetatik 16 austriarrak dira. Oviedorantz zihoazen bi autoren arteko talkaren ondorioz, kotxeetako bat autobidearen beste aldera igo zen eta Gijonera zihoan autobusa irauli egitea eragin zuen. Eloiña Fernández asturiarra eta Richard Edelbecher eta Ulrike Müller austriarrak dira larri dauden bakarrak, kolpe handia hartu zutelako buruan. X

■ Justizia ikerketa bat bidean jarri dute Normandian bide istripua argitzeko

HAMABI lagun hilik eta 66 zauriturik: hori zen joan den astelehen goizean A-13 autobidean Bourg-Achardetik (Eure, Normandia) hurbil gertatutako bide istripu larriari buruz atzo emandako azken balantzea. Hamabi hildakotatik zortzi identifikatu gabeak zeuden atzo, eta 66 zaurituen artean hamalau nahiko larri ziren. Ehun bat ibilgailu baino gehiago harrapatuak ziren bost istripuak argitzeko, auzibide bat indarrean jarri da, eta Bernard Simier epailea ikerketaz arduratuko da, hogeita hamar bat jandarmaren laguntzarekin. Astelehen goiz hartan, behe laino oso tinko bat izateaz eta gidari askoren arreta eskasa nabaria izateaz gain, baliteke lehendabiziko txokea autodun baten burtzorakeriak eragina izatea, irteera bati huts egin ostean atzera egiten hasi baitzen autobidean. X

■ Estatu Batuek ez dute oraindik Total zigortuko


ESTATU BATUETAKO Gobernuak ez du oraindik erabakiko Total petrolio konpainia frantziarrari *D'Amato legea* aplikatuko dion ala ez. Lege horrek debekatu egiten die mundu osoko enpresei Iranen eta Libian inbertsio handiak egitea, bi herrialde horiek «nazioarteko terrorismoaren finantzatzaile» direlakoan. «Kontratua aztertze denbora asko beharko dugu», azaldu dute Washingtongo iturriek. Izan ere, Bill Clintonen Gobernuari oso zaila izango zaio enpresa bat zigortzearen Europako Batasunarekin eta Errusiarekin eta Malaysiarekin -bi herrialdeok parte hartzen dute proiektuan-hazterretzea. X

■ Lau lagun hil dira Parisko 17. udal-barrutiko egoitza batean izan sutean

LAU pertsona hil ziren eta hamar bat zauritu, Parisko 17. udal-barrutiko egoitza batean atzo goizean piztutako sute baten ondorioz. Lauetatik bi etxeko seigarren solairutik salto egin zuten hil ziren, sugarrei ihes egin nahian. Alerta emana zen goizeko 02:00etan eta suhiltzaileek hiru ordu borrokatu behar izan zuten sutearen itotzeko. Lehendabiziko oharpenen arabera, sua istripu baten ondorioa izan zen. X

■ Frantziako Gurutze Gorriko kontuak ikertuko ditu Gobernuak

MARTINE AUBRY Lan eta Elkartasun ministroaren eta Bernard Kouchner Osasunerako Estatu idazkariaren proposamenaz, Gizarte Arazoen Ikuskaritzak Frantziako Gurutze Gorriaren diru kontuak aztertuko ditu. *Le Canard Enchaîné* astekariak azken alean kaleratu zuenez, iaztik Gurutze Gorriaren kontuetan 200 milioi liberako zuloa dago (5.000 milioi pezeta). Astekariaren arabera, Gurutze Gorria etengabe ari da dirua galtzen, hein batean «justifikatzeko zailak diren inbertsio inbentarioen ondorioz». Kontabilitatean ere zenbait hutsune aurkitu ditu *Le Canard Enchaîné*-k. Elkarte humanitarioaren arabera, 1991tik 1995era metatutako zorrak ordaintzeko, ondasun batzuk saldu beharrean dago. Eraikin eta egoitzetan gutxienez 500 milioi libera ditu Gurutze Gorriak. Dekretu berri baten arabera, botere publikoek eskubidea dute «eskuzabaltasun publikotik» bizi diren elkarten diru kontuak ikertzeko. X



Guggenheim aztertuz (eta V)

Guggenheim Bilbao, historia eta bilakaera.

Bihar ostirala **Egunkaria**